## Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 42/2017 FORU DEKRETUA, martxoaren 21ekoa. Honen bidez, Elkartegiak programarako eta industrialdeetarako diru-laguntzak arautzen dira.**

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren xedea Bizkaian aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortzen laguntzea da, Bizkaiko enpresen artean lehiakortasun iraunkorra eta nazioartekotzea sustatuz eta, aldi berean, gure lurraldearen garapen orekatua erraztuz. Estrategia integral bat jarri da martxan horretarako, bost jarduketa-ardatz hauetan oinarritua: kanporako proiekzioa; ekintzailetza; industria eta lehiakortasuna; talentua, eta lurraldeen arteko oreka.

Egungo enpresen lehiakortasuna eta enpresa berrien sustapena funtsezko osagaiak dira Bizkaiko ekonomiak egun dituen erronkei aurre egin ahal izateko, batez ere lana sortzeari eta lanari eusteari begiratzen badiegu.

Bizkaian enpleguaren sorrera eta industria- eta enpresa-sarea sustatzeko xedearekin -eta, beraz, aurrerapen ekonomiko eta soziala lortzeko xedearekin-, Bizkaiko Foru Aldundiak laguntza ematen die lurralde horretan garatzen diren eta helburu horiek dituzten programei.

Enpresa eta pertsona ekintzaileek sortzen dute enplegua; beraz, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak baldintza ekonomikoak erraztuko ditu enpresa-ehuna sortu, hazi eta garatu ahal izateko, betiere enplegua berreskura dadin eta ekonomikoa susper dadin xedea gogoan izanik.

Testuinguru horretan, industria-azpiegitura, elkartegi eta industrialdeetako inbertsioa funtsezko tresna da, haietan kokaturik dauden enpresek hazteko eta produktibitatea areagotzeko aukera izan dezaten.

Dekretu honen lehenengo tituluan, Elkartegiak programaren onuradun diren enpresa eta enpresaburu indibidualentzako diru-laguntzak arautzen dira. Diru-laguntza horien xedea da Azpiegiturak, S.A.U., foru-sozietate publikoak kudeatzen dituen elkartegietan moduluak errentan hartzea.

Bigarren tituluan, Azpiegiturak, S.A.U., foru-sozietate publikoak kudeatzen dituen elkartegietan kokatuta dauden enpresa eta enpresaburu indibidualek egindako inbertsioetarako diru-laguntzak arautzen dira.

Errentamendu-prezioaren diru-laguntzak izateko eskubideak izateko ezarrita dauden baldintzen artean honako hauek daude, besteak beste: kalitatearen arloko edo ingurumenaren kudeaketaren arloko ziurtagiriak edukitzea, edo emakume eta gizonen arteko paritatea enpresaren botere- edo ordezkaritza-eremuetan, enpresan berdintasunerako planak garatzea, eta desgaitasuna duten pertsonak plantillara sartzea.

Aurrerapen ekonomikoa eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko aurrerapausoak ematea, eta, bide horretan, hainbat urte daramatza berdintasunaren arloan lanean.

Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planak 2016-2019 urteetarako diseinatutako jarduketak jasotzen ditu, alor honetan dauden erronkei erantzuna emateko.

Dekretu honetan, genero-ikuspegia jasotzen da, bai hura prestatzeko orduan bai haren aplikazioan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoarekin bat. Ildo horretan, dekretu honen izapidetzean «Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena» sartu da.

Hori dela eta, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak bere helburuak zehaztu zituen, eta horien arteko bat da, hain zuzen ere, sailaren laguntza eta diru-laguntzetarako zeharkako bihurtzea generoaren ikuspegia, sailak funtsezko tresnatzat jotzen baitu zeharkakotasun hori, gizarteari ezagutarazteko zein den berdintasunak duen garrantzia.

## Departamento de Desarrollo Económico y Territorial

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 42/2017, de 21 de marzo por el que se regulan las subvenciones del programa Elkartegiak y polígonos industriales.**

La misión del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia es contribuir a la creación de riqueza y empleo de calidad en Bizkaia, impulsando la competitividad sostenible y la internacionalización en el ámbito empresarial de Bizkaia al tiempo que facilitar el desarrollo equilibrado del Territorio. Para ello se ha puesto en marcha una estrategia integral para hacer efectivo este compromiso basada en cinco ejes de actuación que aúnan proyección exterior, emprendimiento, industria y competitividad, talento y equilibrio territorial.

La mejora de la competitividad de las empresas existentes y la promoción de nuevas empresas son elementos claves para afrontar los retos que se presentan a la economía de Bizkaia, con especial atención a la creación y mantenimiento del empleo.

Con el objeto de impulsar la generación de empleo y la promoción del tejido industrial y empresarial de Bizkaia, y en consecuencia el logro de un progreso económico y social, la Diputación Foral de Bizkaia viene apoyando distintos programas que se desarrollan en este Territorio, encaminados a la consecución de estos fines.

Siendo las empresas y las personas emprendedoras las que crean empleo, el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial, favorecerá las condiciones económicas para que el tejido empresarial pueda nacer, crecer y desarrollarse, con la finalidad de lograr la recuperación del empleo y la reactivación económica

En este contexto la inversión en infraestructuras industriales, Elkartegiak y Polígonos Industriales se configura como una herramienta fundamental para que las empresas en ellos ubicadas puedan crecer e incrementar su productividad.

El presente decreto regula en su título primero las subvenciones dirigidas a empresas y empresarios y empresarias individuales beneficiarias del Programa Elkartegiak para el arrendamiento de módulos en los Elkartegiak gestionados por la sociedad pública foral Azpiegiturak, S.A.U.

El titulo segundo regula las subvenciones para inversiones realizadas por empresas y empresarios y empresarias individuales ubicadas en Elkartegiak gestionados por la sociedad pública foral Azpiegiturak, S.A.U., así como ubicadas en los Polígonos Industriales de que se detallan.

Entre las condiciones establecidas para tener derecho a las subvenciones del precio de arrendamiento se encuentran, entre otras, el disponer de certificados de calidad o de gestión medioambiental, la paridad de la mujer en los ámbitos de poder o representación de la empresa, el desarrollo de planes de igualdad en la misma o la incorporación en sus plantillas de personas con discapacidad reconocida.

Para lograr el progreso económico y social, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres y para ello lleva numerosos años trabajando en materia de igualdad.

El V Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres en Bizkaia recoge las estrategias y actuaciones diseñadas para el horizonte temporal 2016-2019 para poder dar respuesta a los retos que se plantean en este ámbito.

El presente Decreto incorpora la perspectiva de género tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. En su tramitación se incorpora el «Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género».

Por ello, el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial fija sus propios objetivos entre los que figura transversalizar la variable de género en sus diferentes convocatorias de ayudas y subvenciones ya que se entiende como una herramienta fundamental para trasladar a la sociedad la importancia de la igualdad.

cve: BAO-BOB-2017a059

Bestalde, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan jasotzen denaren arabera, gardentasuna bermatu nahi da, bai publizitate aktiboaren arloan, bai informazio publikoa eskuratzeko eskubideari dagokionez.

Horrela bada, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko foru diputatuak proposatu eta Foru Aldundiak 2017ko martxoaren 21ean Gobernu Kontseiluan eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DA:

I. TITULUA

**AZPIEGITURAK, S.A.U. FORU-SOZIETATE PUBLIKOAK KUDEATUTAKO ELKARTEGIETAN MODULUAK ERRENTAMENDUA**

**1. artikulua.—*Xedea***

Titulu honen xedea da Elkartegiak programan onuradun diren enpresentzat errentamendurako diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea.

**2. artikulua.—*Entitate onuradunak***

Enpresaburu indibidualek eta nortasun juridiko propioa duten enpresek jaso ahal izango dituzte foru dekretu honetan araututako diru-laguntzak, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

— Elkartegiak Programaren onuradunak izatea eta 2012/10/31z gero Azpiegiturak, S.A.U.-rekin errentamendu-kontratua sinatu izana.

— Azpiegiturak, S.A.U.rekin hartu dituzten finantza-betebeharrei dagokienez egunean dauden enpresak.

— Zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzearen ondoriozkoak eguneratuta edukitzea.

— Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera. Baldintza hori eskabidean aipaturiko aitorpenaren bitartez egiaztatuko da.

— Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 12. artikuluak ezarritako ezein egoeratan sartuta ez egotea. Baldintza hori eskabidean aipaturiko aitorpenaren bitartez egiaztatuko da.

— Plantillan kontratu mugagabeko pertsona 1 edukitzea, gutxienez, enpresa sortu berria bada, edo bi, gutxienez, lehendik dauden enpresak badira.

Onuraduna lehendik dagoen enpresa edo enpresa sortu berria den erabakitzeko, Elkartegiak Programan sartzean aitortu zitzaion izaera bera hartuko da kontuan.

Titulu honen ondorioetarako, lan-kontratudun langileek eta/edo langile autonomoen araubide bereziko bazkide langileek osatutakoa da plantilla.

Era berean, lan-kontratu mugagabeko langileak ezin dira izan plantilla guztiaren %60 baino gutxiago, eta haien kontratua lanaldiaren %50ekoa izango da, gutxienez.

Enpresa ezin da izan Elkartegiak programaren diru-laguntzak jaso dituen aurreko beste enpresa baten jarraipena.

Gainera, baldintza hauetako bat bete beharko dute:

a) Eskaera aurkezterakoan, erakunde eskatzaileak:

— ISO9001 edo ISO14001 ziurtagiria edo baliokidea izatea (indarrean dagoena).

— PREMIE ziurtagiria izatea (indarrean dagoena).

— Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailari atxikitako foru-sozietate publiko baten, Cedemi-ren, DEMA-Enpresa Garapenaren edo ekonomia sustatzeko arloko udal zentro baten tutoretza izatea.

Por su parte, la Norma Foral 1/2016 de Transparencia de Bizkaia, pretende garantizar la transparencia en la doble dimensión de publicidad activa y de derecho a la información pública.

Así, a propuesta del Diputado foral del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral, en reunión de 21 de marzo de 2017,

SE DISPONE:

TÍTULO I

**ARRENDAMIENTO DE MÓDULOS EN ELKARTEGIAK GESTIONADOS POR LA SOCIEDAD PÚBLICA FORAL AZPIEGITURAK, S.A.U.**

**Artículo 1.—*Objeto***

Constituye el objeto del presente Título aprobar las bases reguladoras y la convocatoria de las subvenciones al arrendamiento para las empresas beneficiarias del Programa Elkartegiak.

**Artículo 2.—*Entidades beneficiarias***

Podrán, acceder a las subvenciones reguladas en este decreto foral, los empresarios y empresarias individuales y empresas, con personalidad jurídica propia que cumplan los siguientes requisitos.

— Ser beneficiarias del Programa Elkartegiak y haber firmado el contrato de arrendamiento con Azpiegiturak, S.A.U. con posterioridad al 31 de octubre de 2012.

— Estar al corriente respecto de sus obligaciones económicas contraídas con Azpiegiturak, S.A.U.

— Encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y por reintegro de subvenciones.

— No haber sido sancionadas, administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, según lo previsto en la ley 4/2005 de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, cuya acreditación se realizará mediante declaración contenida en la solicitud.

— Que no se encuentren incursas en ninguna de las circunstancias que establece el artículo 12 de la Norma Foral de Subvenciones, cuya acreditación se realizará mediante declaración contenida en la solicitud.

— Tener en plantilla con carácter indefinido al menos 1 persona si es empresa de nueva creación o al menos 2 personas si se trata de empresas existentes.

La clasificación en empresa existente o empresa de nueva creación de la entidad beneficiaria será la misma que se reconoció en el acceso al Programa Elkartegiak.

A efectos de este Título se entiende por plantilla la formada por el personal laboral y/o socios/as trabajadores en régimen especial de trabajadores autónomos.

Asimismo, la plantilla indefinida no será inferior al 60% del total de la plantilla, y su contrato será de al menos el 50% de la jornada laboral.

La empresa no será continuidad de otra que anteriormente hubiera recibido subvenciones del programa Elkartegiak.

Además deberán de cumplir al menos uno de los siguientes requisitos:

a) Que la entidad solicitante, en el momento de realizar la solicitud:

— Disponga de un certificado ISO 9001 o ISO14001 o similar, en vigor.

— Disponga de un certificado Premie en vigor.

— Haya sido tutorizada por una sociedad pública foral adscrita al Departamento de Desarrollo Económico y Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia, por Cedemi, DEMA-Empresa Garapena, o por un centro municipal de Promoción Económica.

cve: BAO-BOB-2017a059

b) Enpresaren akziodunen artean gutxienez %50 emakumeak izatea eta emakume akziodun horiek, gutxienez, sozietatearen kapital osoaren %50 edukitzea, edo enpresaburu indibiduala izatea.

c) Kargu hauetako bat, edozein, emakumeek betetzea, eta baldintza hori agiri bidez egiaztatzea.

— Administratzaile bakarra.

— Administratzaile solidario edo mankomunatuen kasuan, gutxienez %50.

— Ahaldun exekutiboa edo kudeatzailea.

d) Plantilletan, Bizkaiko Foru Aldundiak edo, hala badagokio, beste administrazio batek aitortutako %33ko edo goragoko graduko desgaitasun fisiko, psikiko edo zentzuzkoren bat duen pertsonaren bat izatea.

e) Erakunde eskatzaileak lanaren esparruan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren plana garatzea. Inguruabar hori eskumenak dituen administrazioak edo erakunde homologatu batek ematen duen ziurtagiri baten bidez egiaztatu behar da.

f) 2016/11/1az gero, aldi baterako lan-kontratu bat mugagabe bihurtu izana, edo urtebetez ez beheragoko epe bateko lan-kontratazioaren bidez plantilla handitu izana.

g) Plantillaren %50, gutxienez, emakumez osatuta egotea.

h) Enpresako akziodunen %50 gutxienez gazteak izatea eta kapital sozialaren %50 gutxienez haiena izatea,edo enpresaburu indibiduala izatea.

Foru dekretu honen ondorioetarako, pertsona gaztea da dirulaguntza eskabidea aurkezten duenean 29 urte edo gutxiago dituena.

Diru-laguntza eman eta hartaz gozatzeko baldintza bat dago: emateko baldintzei eustea eta indarrean egotea; ondorioz, erakunde onuraduna behartuta dago jakinaraztera aldi horretan gertatzen diren aldaketa guztiak.

### 3. artikulua.—*Diruz lagun daitekeen egitatea*

Honako hauek joko dira diruz lagun daitekeen egitatetzat: eskabidea aurkeztean okupatutako industri pabilioien edota bulego-moduluen errentamendu-gastuak.

### 4. artikulua.—*Diruz lagun daitekeen gastua*

2016ko azaroaren 1etik 2017ko irailaren 30era bitartean sortutako errentamendu-gastuak joko dira diruz lagun daitekeen gastutzat.

Kontratua sinatzen denetik lau urte igarotzen badira, 2016/11/1etik kontratua sinatzen denetik 4 urte betetzen diren egunera arteko errentamendu-gastuak joko dira diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat.

Erakunde eskatzaileak aurretik beste errentamendu-kontratu bat badu sinatuta eskatutakoa baino beste lokal bat erabiltzeko, diruz lagundu daitekeen gastua hau izango da: 2016/11/01etik aurrera Azpiegiturak, S.A.U.rekin sinatutako jatorrizko kontratua izenpetu zela 4 urte betetzen direnera arte sortutako errentamendu-gastuak.

### 5. artikulua.—*Diru-laguntzaren zenbatekoa*

Diru-laguntzaren zenbatekoa sinatutako errentamendu-kontratuan ageri den hileko prezioaren %50erainokoa izango da, komunitate-gastuak eta BEZa alde batera utzita eta diru-laguntza lortzeko beharrezko baldintzak betetzen direla egiaztatzen den unetik kalkulatuta.

Erakunde onuradun batek diru-laguntza izateko eskubidea galduko du baldin eta betetzen ez badu araudi honen bidez edo Azpiegiturak, S.A.U.rekin formalizatutako kontratuen bidez ezarritako betebeharren bat, eta ez du geroago berreskuratzeko aukerarik.

b) Que el accionariado de la empresa esté formado por, al menos, un 50% de mujeres y que éstas posean, al menos, el 50% del capital social, o se trate de una empresaria individual.

c) Que cualquiera de los siguientes cargos sean ocupados por mujeres, acreditándolo documentalmente

— Administradora única.

— Al menos el 50% en el caso de administradores o administradoras solidarias o mancomunadas.

— Apoderada ejecutiva o gerente.

d) Que cuenten en sus plantillas con alguna persona con discapacidad física, psíquica o sensorial, con un grado igual o superior al 33%, reconocida por la Diputación Foral de Bizkaia o por otra administración si correspondiera.

e) Que la entidad solicitante desarrolle un proceso de normalización del uso del euskera en el ámbito laboral acreditada mediante certificación expedida por la administración competente o por una entidad homologada.

f) Que con fecha posterior al 1 de noviembre de 2016 hubieran convertido un contrato laboral temporal en indefinido, o hubieran ampliado la plantilla mediante la contratación laboral por un periodo no inferior a un año.

g) Que la plantilla esté formada al menos por un 50% de mujeres.

h) Que el accionariado de la empresa esté formado por, al menos, un 50% de personas jóvenes y que éstas posean, al menos, el 50% del capital social o se trate de una persona joven empresaria individual.

A los efectos del presente decreto foral, se entiende por persona joven aquella que tenga 29 años o menos, en el momento de presentar la solicitud de subvención.

La concesión y disfrute de la subvención queda condicionada al mantenimiento y vigencia de la condición que dio lugar a la misma, quedando obligada la entidad beneficiaria a comunicar cualquier alteración que haya sobrevenido durante dicho periodo.

### Artículo 3.—*Hecho subvencionable*

Tendrá la consideración de hecho subvencionable los gastos de arrendamiento de los pabellones industriales y/o módulos de oficinas que ocupen en el momento de presentar la solicitud, en el marco del Programa Elkartegiak de la Diputación Foral de Bizkaia.

### Artículo 4 .—*Gasto Subvencionable*

Tendrá la consideración de gasto subvencionable los gastos de arrendamiento producidos entre el 1 de noviembre de 2016 y el 30 de septiembre de 2017.

En el supuesto de que se cumplieran cuatro años desde la firma del contrato, el gasto subvencionable abarcará los gastos de arrendamiento producidos entre el 1 de noviembre de 2016 y la fecha en que se cumplan 4 años desde la firma del contrato.

En el supuesto de que la entidad solicitante tuviera firmado previamente un contrato de arrendamiento por un local diferente al solicitado, el gasto subvencionable abarcará los gastos de arrendamiento producidos entre el 1 de noviembre de 2016 y la fecha en que se cumplan 4 años desde la firma del contrato originario firmado con Azpiegiturak, S.A.U.

### Artículo 5.—*Importe de la subvención*

El importe de la subvención será de hasta un 50% del precio/mes que figure en el contrato de arrendamiento firmado, excluyendo los gastos de comunidad y el IVA y calculado desde el momento en que se acredite cumplir los requisitos necesarios para obtener la subvención.

La entidad beneficiaria perderá el derecho a la subvención en caso de que incumpla alguna de las obligaciones que asume a través de esta normativa o de los contratos que formalice con Azpiegiturak, S.A.U., sin posibilidad de recuperarlo posteriormente.

cve: BAO-BOB-2017a059

**6. artikulua.—*Eskabideak aurkezteko epea***

Eskabideak aurkezteko epea, Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da eta 2017ko iraiaren 29eko 13:30ean amaituko da.

**7. artikulua.—*Eskabideak nola aurkeztu***

Eskabidea Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko Bulego Birtualaren bidez egingo da (www.bizkaia.eus).

Bulego birtualera sartzeko erak:

— Txartela edo ziurtagiria, sinadura elektronikoa duena.

— Bizkaibai txartela; txartel hori Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailean (Orueta apezpikuaren kalea, 6, 48009-Bilbo) lor daiteke.

Eskabidea aurkezteko, ezinbestekoa izango da erakundea Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren erakundeen erregistroan alta emanda egotea (apirilaren 21eko 61/2010 Foru Dekretuaren bidez eta maiatzaren 3ko 85/2011 Foru Dekretuaren bidez arautu zen erregistro hori). Egoera horretan ez badago, erakundeak inskribatzeko eskaera bete beharko du, diru-laguntza eskabidea izapidetu baino lehen.

Eskabidea aurkeztuta, eskatzaileak baimena ematen dio diru-laguntza ematen duen organoari zuzenean informazioa lor dezan jakiteko ea egunean dituen zerga-eginbeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak, Lanbideri edo dagokion Enpleguko zerbitzu publikoarekikoak eta beste edozein administrazio publikoarekikoak.

Informazio hori Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarri denarekin bat erabiliko da.

Eskabideekin batera, adierazitako dokumentazioa aurkeztu behar da, gorago aipatu den bulego birtualean dauden agiriak eransteko sistema erabilita.

**8. artikulua.—*Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa***

— Azpiegiturak, S.A.U.-rekin hartutako betebehar ekonomikoei dagokienez, haiek egunean edukitzeari buruzko ziurtagiria.

— Hartzekodunaren fitxa, Bizkaiko Foru Aldundian banku-helbideratzeari buruzko datuak ez badaude edo bertan dauden datuak aldatu nahi badira.

— Alokairu-fakturak eta haien ordainketa-frogagiriak, halakorik izanez gero

Gainera:

— Erakunde eskatzaileak eskabidea egiten duen unean kalitatearen arloko ISO 9001 edo 14001 ziurtagiria edo baliokidea badu, edo Premie ziurtagiri bat badu edo, bestela, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailari atxikitako foru-sozietate publiko baten, Cedemi-ren, DEMA-Enpresa Garapenaren edo ekonomia sustatzeko arloko udal zentro baten tutoretza badu:

• Dagokion erakundeak emandako ziurtagiria.

— Baldin eta enpresaren akziodunen artean gutxienez %50 emakumeak badira eta emakume akziodun horiek gutxienez sozietatearen kapital osoaren %50 badute:

• Inguruabar hori egiaztatzeko eskritura edo eskriturak.

— Emakumeen esku badago jarraian adierazten karguetatik edozein. administratzaile bakarra (administratzaile solidarioak edo mankomunatuak diren kasuan, gutxienez %50) eta ahaldun exekutiboa edo kudeatzailea emakumezkoa dela.

• Egiaztagiria.

— Plantilletan, Bizkaiko Foru Aldundiak edo, hala badagokio, beste administrazio batek aitortutako %33ko edo goragoko graduko desgaitasun fisiko, psikiko edo zentzuzkoren bat duen pertsonarik izanez gero:

**Artículo 6.—*Plazo de presentación de solicitudes***

El plazo de presentación de solicitudes, se iniciará al día siguiente de la publicación de este Decreto Foral en el «Boletín Oficial de Bizkaia» y finalizará a las 13:30 horas del 29 de septiembre de 2017.

**Artículo 7.—*Presentación de las solicitudes***

La solicitud se presentará por Internet, a través de la Oficina virtual del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial en www.bizkaia.eus.

El acceso a la Oficina Virtual podrá realizarse por medio de:

— Tarjeta o certificado con firma electrónica.

— Tarjeta Bizkaibai, que podrá obtenerse en el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial (calle Obispo Orueta, 6, Bilbao).

Para la presentación de la solicitud será requisito que la entidad figure dada de alta en el registro de entidades del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial regulado mediante el Decreto Foral 61/2010, de 21 de abril y el Decreto Foral 85/2011, de 3 de mayo. En caso de no encontrarse en esta situación, la entidad deberá cumplimentar la solicitud de inscripción como paso previo a la tramitación de la solicitud de la subvención.

La presentación de la solicitud conllevará la autorización de la persona o entidad solicitante para que el órgano concedente pueda obtener de manera directa la información relativa a su situación tributaria, con la Seguridad Social, con Lanbide o el servicio público de empleo que corresponda y con cualquier otra administración pública.

Esta información será tratada conforme a lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal.

Las solicitudes deberán ir acompañadas de la documentación que se fije, utilizándose el sistema de anexado de documentación existente en la oficina virtual anteriormente citado.

**Artículo 8.—*Documentación a presentar junto con la solicitud***

— Certificado de estar al corriente respecto de sus obligaciones económicas contraídas con Azpiegiturak, S.A.U.

— Ficha de parte acreedora, en el caso de que no consten los datos de domiciliación bancaria en la Diputación Foral de Bizkaia, o si se desea modificarlos.

— Si se dispone de ellas, facturas del alquiler y sus justificantes de abono.

Además:

— En el supuesto que las entidades solicitantes dispongan en el momento de realizar la solicitud de un certificado ISO 9001 ó ISO14001 o similar, un certificado Premie o hayan sido tutorizadas por una sociedad pública foral adscrita al Departamento de Desarrollo Económico y Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia, por Cedemi, DEMA Enpresa Garapena o por un centro municipal de Promoción Económica:

• Certificación emitida por el organismo correspondiente.

— En el supuesto que el accionariado de la empresa esté formado por, al menos, un 50% de mujeres y que éstas posean, al menos, el 50% del capital social:

• Escritura o escrituras que permitan acreditar esta circunstancia.

— En el supuesto que cualquiera de los siguientes cargos: administradora única, al menos el 50% en el caso de administradores o administradoras solidarias o mancomunadas, apoderada ejecutiva o gerente sean ocupados por mujeres:

• Acreditación documental.

— En el supuesto que cuenten en sus plantillas con alguna persona con discapacidad física, psíquica o sensorial, con un grado igual o superior al 33%, reconocida por la Diputación Foral de Bizkaia o de otra administración si correspondiera:

cve: BAO-BOB-2017a059

- Desgaitasunaren gradu egokia egiaztatzen duen Bizkaiko foru Aldundiaren (edo antzeko beste administrazio baten, hala badagokio) ziurtagiria.

— Baldin eta erakunde eskatzaileak lanaren esparruan euskararen erabilera normalizatzeko prozesu bat garatzen badu:

- Eskumenak dituen administrazioak edo erakunde homologatu batek ematen duen ziurtagiria. Horren bidez egiaztatuko da enpresa badagoela lanaren esparruan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuan.

— 2016ko azaroaren 1az gero aldi baterako lan-kontratu bat kontratu mugagabe bihurtu bada:

- Ukituriko langilearen aldi baterako lan-kontratuaren eta kontratu mugagabearen kopia.

— 2016ko azaroaren 1az gero lan-kontratuko langileen plantilla urtebetekoa baino laburragoa ez den kontratu batez handitu bada:

- Ukituriko langilearen kontratu mugagabearen kopia.

— Enpresako akziodunen %50 gutxienez gazteak izatea, eta kapital sozialaren %50 gutxienez haiena izatea:

- Inguruabar hori egiaztatzeko eskritura edo eskriturak.

**9. artikulua.—*Laguntzak emateko prozedura***

Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20. artikuluan xedatutako norgehiagokarik gabeko araubidean emango dira dekretu honetan araututako diru-laguntzak.

Foru Aldundiaren 5/2005 Foru Arauko 20. artikuluaren arabera, dekretu hau gauzatzeko orduan zera jotzen da norgehiagokarik gabeko prozeduratzat: eskariak jaso ahala banatzea diru-funtsak. Hala, bada, eskabideek Bizkaiko Foru Aldundiko erregistroan duten sarrera-dataren eta beharrezko dokumentazio osatu eta baliogarritasunez sartzearen arabera ezarriko da eskarien lehentasuna, eta, deialdian ezarritako betekizunak betetzen badituzte, aurrekontuko hornidurek ahalbidetzen duten bitartean emango dira laguntzak.

**10. artikulua.—*Diru-laguntza ordaintzea eta aurrerakina jasotzeko aukera izatea***

Eskabidearekin batera fakturak eta haien ordainketen frogagiriak aurkeztu badira, diru-laguntza ematen den unean justifikatutako zenbatekoa kontuan hartuko da ordainketa egiteko. Kasu horretan, justifikazio-kontu partzialtzat hartuko da fakturekin eta ordainketen frogagiriekin batera aurkezten den eskabidea.

Diru-laguntza gehienez ere hiru ordainketatan egin daiteke, justifikazio-kontu partzial egokiak aurkeztu eta gero.

Betebeharra aitortu eta diru-laguntza ordaindu aurretik, onuradunek zerga-betebeharrak nahiz zuzenbide publikoko gainerakoak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak ere, bete dituztela egiaztatuko da.

Ez da onartuko diru-laguntzaren aurrerakinak ordaintzeko aukerarik.

**11. artikulua.—*Justifikatzeko epea***

Justifikazioak aurkezteko epea 2017ko urriaren 31ean, 13:30ean bukatuko da.

Justifikazioa ez bada ezarritako epean aurkezten, ez betetzearen adierazpena egingo da, eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan ezarritako erantzukizunak eskatuko dira. Izan ere, foru arau horretan arautzen da Foru Administrazioak emaniko diru-laguntzen araubide juridiko orokorra.

**12. artikulua.—*Justifikatzeko modua***

Diru-laguntzak justifikatzeko, justifikazio-kontua aurkeztu beharko da, 7. artikuluan aipatutako Bulego Birtualean, bai eta gastuen ziurtagiriak ere; beraz, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- Certificado expedido por la Diputación Foral de Bizkaia (o análogo de otra administración, si correspondiera) acreditativo de la discapacidad en el grado correspondiente.

— En el supuesto que la entidad solicitante desarrolle un proceso de normalización del uso del euskera en el ámbito laboral:

- Certificación expedida por la administración competente o por una entidad homologada, acreditativa de que la empresa se encuentra inmersa en un proceso de normalización y uso del euskera en el ámbito laboral.

— En el supuesto de que a partir del 1 de noviembre de 2016 se hubiera convertido un contrato laboral temporal en indefinido:

- Copia del contrato de trabajo temporal y copia del contrato indefinido de la persona trabajadora afectada.

— En el supuesto de que a partir del 1 de noviembre de 2016 se hubiera ampliado la plantilla de personal laboral con contrato por un periodo no inferior a 1 año:

- Copia del contrato indefinido de la persona trabajadora afectada.

— En el supuesto que el accionariado de la empresa esté formado por, al menos, un 50% de personas jóvenes y que éstas posean, al menos, el 50% del capital social:

- Escritura o escrituras que permitan acreditar esta circunstancia.

**Artículo 9.—*Procedimiento de concesión***

Las subvenciones reguladas en este Decreto se concederán en régimen de libre concurrencia, previsto en el artículo 20 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

Se entiende, de conformidad con el artículo 20 de la Norma Foral 5/2005, a los efectos del presente Decreto como libre concurrencia el procedimiento mediante el cual se distribuyen los fondos según se reciban las peticiones, atendiendo al orden prioritario de Registro de entrada de la solicitud en el Registro de la Diputación Foral de Bizkaia, y a la completa y válida incorporación de la documentación necesaria, siempre que reúnan los requisitos establecidos en la convocatoria y hasta que las dotaciones presupuestarias lo permitan.

**Artículo 10.—*Abono de la subvención y posibilidad de anticipo***

Si en la solicitud se hubieran incluido facturas y sus justificantes de pago, el abono de la subvención se realizara por el importe justificado en el momento de la concesión de la subvención. En este caso la solicitud junto con las facturas y sus justificantes de abono tendrán la consideración de cuenta justificativa parcial.

La subvención se podrá abonar hasta en tres pagos, previa presentación de las correspondientes cuentas justificativas parciales.

Previo al reconocimiento de la obligación y al pago de la subvención, se comprobará que las entidades beneficiarias se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y, en su caso, frente a la Seguridad Social.

No se considera la posibilidad de abonar anticipos de la subvención.

**Artículo 11.—*Plazo de justificación***

La presentación de la justificación finalizará a las 13:30 horas del 31 de octubre de 2017.

La falta de presentación de la justificación en el plazo establecido llevará consigo la declaración de incumplimiento con las responsabilidades establecidas en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

**Artículo 12.—*Forma de justificación***

Las subvenciones deberán justificarse mediante la presentación, a través de la Oficina Virtual indicada en el artículo 7, de la cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto, lo que implica la aportación de la siguiente documentación:

cve: BAO-BOB-2017a059

— Diru-laguntza emateko baldintzei eusten zaiela berenberegi jasotzen duen memoria, I. eranskinean ezarritako ereduaren araberakoa.

— Diruz lagundutako egintzaren gastuen zerrenda sailkatua, 2. eranskineko ereduaren araberakoa.

— Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko erabili diren beste sarrera batzuen zerrenda xehatua, 3. eranskineko ereduaren araberakoa.

— Fakturak edo merkataritza-trafikoan haien baliokide diren ziurtagiriak, eta ordainketaren ziurtagiriak.

Halaber, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak diru-laguntzaren justifikaziorako beharrezkotzat jotzen dituen agiri edo/eta informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango dizkio entitate onuradunari.

Diruz lagun daitekeen gastu edo inbertsioaren zenbateko guztia justifikatu behar da, ez emaniko diru-laguntzaren zenbatekoa.

II. TITULUA

**INSTALAZIOAK EDO MAKINAK MODERNITZATZEA AZPIEGITURAK, S.A.U. SOZIETATEAK KUDEATUTAKO ELKARTEGIETAN KOKATUTA DAUDEN ENPRESETAN, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN PARTAIDETZA DUTEN INDUSTRIALDEETAN, ETA 10.000 BIZTANLE BAINO GUTXIAGO DITUZTEN UDALERRIETAKO INDUSTRIALDEETAN**

**13 . artikulua.—*Xedea***

Titulu honen xedea da instalazioak edo makinak modernizatzeko inbertsioak egiteko diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea:

— Azpiegiturak, S.A.U. foru-sozietate publikoak kudeatutako elkartegietan kokatuta dauden enpresetan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza duten industrialdeetako enpresetan.

— 10.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietako industrialdeetan kokatuta dauden enpresetan.

Elkartegi eta industrialdeen zerrenda 4. eranskinean dago.

**14. artikulua.—*Entitate onuradunak***

Enpresaburu indibidualek eta nortasun juridiko propioa duten enpresek jaso ahal izango dituzte foru dekretu honetan araututako diru-laguntzak, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Sozietatearen helbidea eta zerga-helbidea Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

b) 4. eranskinean zehazten diren industrialdeetan kokatuta egotea.

c) Jabetzan izatea edo errenta-araubidean egotea eta errentatzailearekin hartutako betebeharrak egunean izatea.

d) Zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta diru-laguntzak itzultzearen ondoriozkoak eguneratuta edukitzea.

e) Banakako enpresaburuak badira, Gizarte Segurantzaren langile autonomoen araubide berezian eta ekonomia-jardueren gaineko zergan epigrafe egokian alta emanda egon behar dute.

f) Merkataritzako sozietateak badira, ekonomia-jardueren gaineko zergan epigrafe egokian alta emanda egon behar dute, eta Merkataritzako Erregistroan inskribatuta.

g) Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera. Baldintza hori eskabidean aipaturiko aitorpenaren bitartez egiaztatuko da.

— Memoria en la que conste expresamente el mantenimiento de la condición por la que se concede la subvención según modelo establecido en el anexo 1.

— Relación clasificada de gastos del hecho subvencionado, según modelo establecido en el anexo 2.

— Relación detallada de otros ingresos que hayan financiado la actividad subvencionada, según modelo establecido en el anexo 3.

— Facturas o documentos de valor probatorio equivalente en tráfico mercantil y sus justificantes de abono

Asimismo, el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial podrá requerir a la entidad beneficiaria cuanta documentación y/o información complementaria considere necesaria para la adecuada justificación de la subvención.

La justificación se realizará por el importe total del gasto o inversión subvencionable, no por el importe de la subvención concedida.

TÍTULO II

**MODERNIZACIÓN DE INSTALACIONES O MAQUINARIA EN EMPRESAS UBICADAS EN ELKARTEGIAK GESTIONADOS POR AZPIEGITURAK, S.A.U., EN POLÍGONOS INDUSTRIALES CON PARTICIPACIÓN DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y EN POLIGONOS INDUSTRIALES UBICADOS EN MUNICIPIOS MENORES DE 10.000 HABITANTES**

**Artículo 13.—*Objeto***

Constituye el objeto del presente Título aprobar las bases reguladoras y la convocatoria de las subvenciones para la realización de inversiones para la modernización de instalaciones o maquinaria en:

— Empresas ubicadas en Elkartegiak gestionados por la sociedad pública foral Azpiegiturak, S.A.U., y empresas ubicadas en los Polígonos Industriales participados por la Diputación Foral de Bizkaia.

— Empresas ubicadas Polígonos Industriales ubicados en municipios menores de 10.000 habitantes.

La relación de Elkartegiak y Polígonos Industriales se relaciona en el Anexo 4.

**Artículo 14.—*Entidades beneficiarias***

Podrán, acceder a las subvenciones reguladas en este decreto foral, los empresarios y empresarias individuales y empresas con personalidad jurídica propia que cumplan los siguientes requisitos:

a) Tener su domicilio social y fiscal en el Territorio Histórico de Bizkaia.

b) Estar ubicadas en algúno de los polígonos establecidos en el Anexo 4.

c) Tener la propiedad o estar en régimen de alquiler y estar al corriente respecto de sus obligaciones económicas contraídas con la arrendadora.

d) Encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y por reintegro de subvenciones.

e) En el caso de empresarios y empresarias individuales deben encontrarse en situación de alta en el Régimen Especial de Trabajadores Autónomos de la Seguridad Social, así como en el epígrafe correspondiente del Impuesto sobre Actividades Económicas.

f) En el caso de sociedades mercantiles, encontrarse dadas de alta en el epígrafe correspondiente del Impuesto de Actividades Económicas, así como inscritas en el Registro Mercantil.

g) No haber sido sancionadas, administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, según lo previsto en la ley 4/2005 de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, cuya acreditación se realizará mediante declaración contenida en la solicitud.

cve: BAO-BOB-2017a059

h) Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 12. artikuluak ezarritako ezein egoeratan sartuta ez egotea. Baldintza hori eskabidean aipaturiko aitorpenaren bitartez egiaztatuko da.

i) 15 pertsona baino gutxiagoko plantilla izatea, lansaio osokoak urteko kopuru baliokideetan.

Plantillakotzat joko dira enpresaren jarduerari atxikita dauden baina euren izaeragatik Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean alta emanda egon ezin diren langile autonomoak.

j) Azken zerga-ekitaldian 3.000.000 euro baino gutxiagoko negozio-kopurua izatea.

k) Azken zerga-ekitaldian 3.000.000 euro baino gutxiagoko balantzea izatea.

Betekizunak eskabidea aurkezten denean egiaztatu behar dira, eta ebazpena eman eta ordainketa egin arte eutsi behar zaie.

Honako erakunde hauek geratzen dira diru-laguntza honetatik kanpo: sozietate publikoak, zuzenbide publikoko erakundeak eta ondasun erkidegoak, eta sozietate zibilak.

**15. artikulua.—*Diruz lagun daitekeen egitatea***

Egitate hauek joko dira diruz laguntzeko egitatetzat: makinak edo ekipamenduak modernizatu, hobetu edo gehitzeko egindako inbertsioak, lehiakortasuna eta ingurumenaren kudeaketa hobetzeko eta langileen segurtasuna eta berdintasuna hobetzeko badira.

Diru-laguntza jasotzen duten ondasunak eskaera egiten duen enpresan aplikatu eta ezarri beharko dira, eta enpresak berak jasoko ditu haien onurak. 4. eranskinean zehazten diren elkartegietan eta industrialdeetan kokatutako zentroetan zuzenean aplikatzekoak diren inbertsioak baino ez dira diruz lagunduko.

Hauek dira finantza daitezkeen inbertsioak:

— Enpresaren jarduerarekin zuzenean lotuta daudenak.

— Diruz lagundutako ondasunek gutxienez 2 urtez jarraitu behar dute enpresaren aktiboan, lantoki berberean.

— Ezin dira hirugarrenei lagata egon, ezta errentan emanda ere, kontraprestazioa izan zein ez izan.

— Ezin dira entitate eskatzaileak berak fabrikatuak izan.

**16.artikulua.—*Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak***

Honako kontzeptu hauek hartuko dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat:

— Aplikazio informátikoak.

— Merkataritza elektronikoa eskaintzen duten web orriak.

— Informazioa prozesatzeko ekipoak.

— Makineria.

— Tresneria.

— Instalazioak egokitu edo hobetzeko lanak.

— Garraio-elementuak (material edo salgaien lurreko garraiorako bakarrik).

— Altzariak.

Diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat joko dira 2016ko azaroaren 1aren eta 2017ko urriaren 31ren (biak barne) bitarteko faktura duten inbertsioak. Faktura horien ordainketa 2017ko abenduaren 14a baino lehenagokoa izan behar da.

Honako hauek ez dira diruz lagunduko:

— BEZa eta gainerako zerga eta tasak.

— Deskontuak

— Enpresa eskatzaileari lotutako enpresa edo pertsonen bidez egindako gastuak.

— Bigarren eskuko ondasunak eskuratzea.

h) No encontrarse incursas en ninguna de las circunstancias que establece el artículo 12 de la Norma Foral de Subvenciones, cuya acreditación se realizará mediante declaración contenida en la solicitud.

i) Tener una plantilla inferior a 15 personas en equivalentes anuales a jornada completa.

